

hiesa, kul tura, gizartea

EUSKARA KULTUR ELKARGOAK  
SEISIDA - Sociedad Española Interdisciplinar del SIDA  
delakoaren V. bileran nazionalaren egitarauaren barne  
2000. Maiatzaren 5ean  
Iruñean  
antolaturiko mahai-ingurua.

**Mahai-kideak:**

**Juan Madariaga Orbea**

*Nafarraoko Unibertsitate Publikoko Historia Irakaslea*

**Mariluz Esteban**

*Gizarte Antropologiako Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean.  
Mugimendu Feministako partaidea*

**Iñigo Lamarca Iturbe**

*Legelaria. Gehitu-ko lehendakaria*

**Koldo Martínez Urionabarrenetxea**

*Euskara Kultur Elkargoko Lehendakari ordea. Medikuntzan  
Doktorea. Giza Sexualitateaz Master. Bioetikaz Magister*

<i>Aurkezpena</i>	5
<i>Gizartearen jokabideak, hondamendiek sortutako heriotzen aurrean Historian zehar</i>	7
Juan Madariaga Orbea	
<i>Emakumeak eta Hiesa</i>	15
Mari Luz Esteban	
<i>Sexua eta Hiesa.</i>	
<i>Amodioa hiesaren garaian</i>	31
Iñigo Lamarca Iturbe	
<i>Hiesa eta gorputz politikoa</i>	41
Kol do Martínez Urionabarrenetxea	



## *Aurkezpena*

EUSKARA KULTUR ELKARGOIA Fundazioa hiritar konpromezu batetik sortu da Nafarroako biztanleriaren artean euskara eta euskal kultura ezagutu, gartu eta bilakatzeko asmoz.

Batzutan, kultura ondarean da: arbasoetatik jasotakoa babesteko eta etorkizuneko belaunaldiei transmititzeko. Baina guk ere kultura sortzen dugu, gure gizartean eta gure gizarteari begira. Maila honetan orain plazaratzen ditugun gogoetak eta zertzeladak koka ditzakegu.

Plazer haundiz agurtzen zaitugu, irakurle. Zeren eta azkenean, EUSKARA KULTUR ELKARGOIA osatzen dugunok, liburuska hau argitara eman ahal izan dugu. Horretarako, aurtun Iruñean Hiesari buruzko SEISIDA (Sociedad Española Interdisciplinar del SIDA) delakoaren kongresoan geure elkargoko partaide batek mahai-inguru bat euskara hutsean egitea proposatu zuen. SEISIDAKo antolatzaileek beren onespina berehala agertu ziguten. Hizlariak aurkitzea ez zen zaila izan, mintzo ziren laurak oso ezagunak baitira Hiesaren munduan. Aurkeztu zituzten lanen izenburuek arrakasta zabala izan zuten kongresoaren parte hartzaileen artean, eta horrexegatik, jende mordoska agertu zen aretora, bapateko itzulpenik izango zelakoan pentsatuz. Euskara hutsean ospatu behar zela jakitean, askok, beren pena agertu ondoren, alde egin zuten. Hala eta guztiz ere, aretoa jendez beterik egon zen: Hiesaren kontrako profesio lan, mugimendu eta erakundeetan uste baino gehiago euskaldun omen da. Eta honek ere poztu egiten nau. Mahai-ingurua ospatu zen aretoan zegoen entzule

batek eman zigun ideia: "mesedez, argitara eman ezazue hemen esandakoa". Eta ideia ona zela pentsatu genuen, eta hemen daukazu, irakurle, esku artean, han esandakoa.

Bilera horretan eginiko burutazioak dauzkazu zure esku, beraz. Hiesa bezain gai politiko eta polemiko batez, agian. Eta egia esan, geurea izan zen sindromearen alde sozial, kultural eta politikoak ukitu zituen tribuna bakarra. Zientziak ez du mugarik, internazionala da berez, dudarik gabe, bainan era berean, eritasun bakoitza testuinguru batean kokatu beharra dago, leku zehatz batean ematen baita. Eri bakoitzak izen propio bat du, gaiso bakoitza herri konkretu batean bizi da, eta BERA delako ezagutzen ohi dugu. Eta faktore hauek dira eritasun abstrakto, unibertsal eta jeneralizatua gureganatu, hurbildu, egiten dutenak, zer berezi eta hurbileko bat bezala sentitzera erakartzen gaituena. Eritasunak ez dira, hizlari batek esan zuen arabera, laborategietan ematen diren gertakizunak, baizik eta herrian, gizartean, lagun artean, batez ere. Horrela sentitzen ditugu gehienetan behintzat.

Eta gutxitan analizatzen den eritasunaren alde hori ikertu nahi izan genuen antolaturiko mahai-inguruan. Lortu genuen ala ez, liburuska irakurri ondoren erabakiko duzu, irakurle. Bainan, jakin ezazu alde aurretik, EUSKARA KULTUR ELKARGOAK lan honi eutsi nahi diola. Euskaraz, geure gizartea afektatzen duen alde oro ikertuz, eta ahal dugunean, ahal dugun neurrian, irtenbideak proposatuz.

Asmo horretan geurekin bat egingo duzulakoan, irakur ezazu liburu hau.

José Luis Mendoza  
EKEko Lehendakaria

*Gizartearen jokabideak, hondamendiek  
sortutako heriotzen aurrean Historian zehar*

**H**asiera hasieratik argitu behar dut nire espezialitatea ikerlari modura Historiaren eremuan kokatzen dela, zehazki, heriotzaren aurrean ematen diren jokabide ezberdinak aztertzen. Nire iritziz, izurriteen edota hondamenezko heriotzen aurrean ematen diren jokabide kolektiboei buruzko kontsiderazio batzuk, egun azaltzen diren pareko egoerak aztertzeko, hausnarketa eta konparaketa elementu bezala har daitezke.

Hasteko esan, ohizko mentalitatean bi herio mota egon direla, bata “ona” eta bestea “gaiztoa”. “Arima salbazio bidean” jartzeko, gutxiengo eskakizunak bermatzen duen erritua betetzeko baldintzak eskaintzen zuena “ona” zen. Kristaumentzat adibidez, honela laburbiltzen zen, herio orduaren gertutasunaren kontzientzi osoa, azken damutzea, eta azken sakramentuak betetzea. Herio “gaiztoa” berriz, bat-batekoa zen, istripuren batek eragindakoa, bortitza, azken uneko damutzea eragozten zuena. Egun hiltzear dagoenari benetako egoera ezkutatzeko joera badago ere, bere igarotzea ahal den leunena eta ez jakitunena izan dadin. XVII.mendean hiltzear zegoenaren ohe inguruan zeudenen erantzukizun handiena, ahalik eta gordintasun handienarekin egoeraren berri ematea zen, “prest egon” zedin.

Aurreikusi gabeko herioaren egoerari gehitzen badiogu lurrikarek eta izurriteek... dakarten faktore biderkatzailea. Emaizta bezala,

kutsadura zabalena eta hondamendien lagungarri diren, benetako izu kolektiboaren eszenatokia lortuko dugu. Arrazoirik gabeko Herio kolektiboa sortzen zenean, aurrerago aipatuko dudana Herri-egazkerak zioen, komunitateak egindako bekatuak zuzentzeko jainkotasunak bidalitako zigorra zela. Bat-bateko herioa, “gaiztoa”, bekatuak eragindako jokabideari lotuta, hondamendiei, benetako dimentsioa ematen zieten, zorigaitz fisikoarena eta moralarena. Esandakoa azaltzeko zer hobeto 1755eko Domuru Santu egunean Lisboan suertatutako lurrikara baino. Razionalismo Ilustratuaren baikotasun garaian, Portugaleko hiriburuaren suntsiketa hain egun azpimarragarrian izateak izugarrizko ezkortasun eta ezintasun olatua sortu zuen. Rousseau eta Voltaireren (Poème sur le désastre de Lisbonne, 1756), artean pizten den eztabaida gai honen inguruan, guztiz adierazgarria suertatzen da herio kolektiboak ematen duen ezusteko kolpearen aurrean jarrera mentalak azaltzeko: sineskeria, razionaltasunean konfidantza, Jainkoaren zigorra, naturaren indarrak.

Esan, nahiz eta agente kutsakor ezberdinak izan, oso jokabide antzerakoak ematen direla bat-bateko herio jasan aurrean. XIV. mendetik XVII.era izurritearenak dira, XVIII. mendea baztangarena, XIX. mendea kolerarena eta birikeriarena, eta XX. mendea HIESarena; beti ere “sukar” mota ezberdinak lagun izanik : sukarrestula, sukar horia, sukar paludikoak, "terzianak" deiturikoak, ... Arau orokor bezala herio jasan egoera berezien aurrean psikologia kolektiboa aldatu egiten da, “gizon arruntaren desagertzea” sortzen da, ondorioz, lana egiten duten heroiak eta erantzukizunik hartzeke ihes egiten duten gaiztoak ugaltzen dira. Horrela historian zehar egoerak errepikatzen dira, ez da aurkitzen nork zaindu gaixoak, nork batu eta lurperatu hildakoak. Apaizek bere eliztarrak uzten dituzte, eta batzuetan gurasoek bere seme-alabak bere kasa uzten dituzte.

Bestalde aipatu behar dira ebidentzia bat eta begi-bistako kontraesan bat. Izurriak neurri handi batean, prozesu zibilizatzaileen

emaitza dira. Izan ere kutsadura gizakiok elkarrekin egoteko maiztasunaren arabera dago. Antzinako zibilizazioetan harremanen urritasunak, kutsadura posibilitatea asko gutxitzen zuen. Sedentarizazioa eta jende pilaketa hirien inguruan asko areagotu zuten gaixo kutsakorren hedapena. Beraz, ez da kasualitatea ezagutzen den lehen izurritea Atenasen sortzea 431.urtean K.A., garai hartako gune hiritartu garatuenean. Eta European hedatu zen izurrik handiena 1347-48an izatea, XII. eta XIII. mendeetan emandako, neurrik gabeko garapen urbanoaren ondoren. Kutsadurari ematen zitzaion irtenbideetariko bat, beraz, hiriak utzi eta baserri guneetan eta gotorleku isolatuetan babestea zen. Izurritea, hirien edota populazio gune handien, berezko gaixo ezkutua jarraituko du izaten mendeetan zehar, eta baldintza egokiak ematen direnean, iratzarri eta berriro hedatuko da.

Bestalde kolerak inpakturik handiena hirietan sortu zuen, aglomerazioari eta ur hornidurari lotuta. Hiriko, zein baserriko uren kutsadura endemikoa zen European; Mendiko errekek ziren soilik garbi zeudenak. Dena erreka isurtzen zen kontrolik gabe: ur zikinak, zaborrak, zakarrak, industria hondakinak,...populazioaren ahuleziak bakarrik saihestu zituen katastrofe handiagoak. Kolera eragileen egiaztapen zientifikoa ateratzeko John Snowk, Londreseko Sohoan 1854an sortu ziren kolera kasuen kartografia burutu zuen. Azterketaren ondorioz, kasu gehienak Broad Streeten lekutzen zen ur ponpa baten inguruan ematen zirela aurkitu zuen. Beraz, ur ponpa itxi eta izurritea amaitu zen.

Zabor metaketak eta goseteek eragindako ahuleziak, hitz batean pobreziak, tifusa garatzen du. Era berdinean izurriaren kutsaduraren jatorria elikadura eskasak sortutako ahuleziari lotu zaio beti denik. Apokalipsiko zaldunak balira bezala, gosea, gerra eta izurritea, elkarrekin doaz. Lonbardiako kalongeak, Cesar Morinek 1610ean argitaratu zuen “Izurritearen tratatua” liburuan, atal bat agertzen da

honako izenburuarekin: “Nola gosete handien garaiei izurrien garaiak jarraitzen dion”.

Epidemiei aurre egiteko jokabide kolektiboaren beste ezaugarri bat, neurririk gabeko izua eta oinarritu gabeko beldurra dira. Paradigma bezala, ikus besterik ez dago historian zehar gizakiek izandako erreakzioa lenegarraren aurrean. Ohizko irtenbideak lazaretoenak ziren, bertan gaixoak isolatzeaz gain, soinean sanbenitoak edota txilinak jartzen zizkieten urrutitik non zeuden jakin eta saihesteko. Jokabide honek zekarren arazoa gaixoen isolamenduarena zen, batetik gizartearen izu ikaragarriak, zein lenegarraren inguruan zegoen nahasketak, edozein azal-gaitz aknea barne asimilatzen zuelako, beraz, gaixo multzoa neurririk gabe hastea eragiten zuten.

Epidemien aurrean sortzen zen egonezin kolektiboak, izugarritzko indarkeri jasak ezartzen zituen ustezko gaitzen errudunengan, atzerritarrak, bidaiariak, ijitoak, judutarrak, sorginak... akusazioa Erdi Arotik gaurdaino, lenegarra zutenen , judutarren zein jesuiten kontra behin eta berriro erabili ohi dena da: iturrien pozoiketa, alegia. XIV.mendetik XVII.era, Italian, Prusian edo Frantzian, torturapean, epidemien errudunak zirela konfesatu zuten hainbat lagunak prozesuak burutu ziren, ondoren exekutatuak izateko. Baina oraindik askoz beranduago 1885ean Var-eko kolera epidemiaren inguruan, beltzez jantzitako pertsonai misterioitsuak kutsaduraren errudun bezala hartu ziren, “aberatsek asmatutako ipuina pobreak hiltzeko”.

Kutsaduraren erruduna beti “bestea” da, eta hizkuntza kutsatzera irits daiteke. Espainian 1627-1636ko izurriari “flamenkoa” deitzen zioten, Lorenan “hungaroa” edo “suediarra”, Toulousen “milanesa”. Era berean Espainian sifilia “gaitz frantsesa” izenarekin ezagutzen zuten. Italian berriz “gaitz-espainola” . Batzuetan epidemiak ordaintzen zutenak abereak ziren, 1631ko izurrian adibidez, babes neurri bezala etxeko abere guztiak hiltzea erabaki zen, zakurrak,

katuak, untxiak, naiz eta inori ez bururatu arratoiak hiltzea.

Izu eratortzen zen heriotzaren izaera masibo eta arbitrarioagatik. Herio “normalak” onartzen ziren, baina ez sentsurik gabeko herioak. Epidemiak aztertzerakoan irakurketa bikoitza ematen da; batetik azterketa kultuarena, erasoaren izaera selektiboa ezberdintzen du: Batez ere pobreak eta gosea dutenak hiltzen dira. Herri ezagueraren arabera, berriz, erasoaren izaera arbitrarioa nabarmentzen du. Neurri batean kontzeptu hauek erlijio arruntak zabaldukoetan eta Erdi Aroko tradizio ikonografikoan oinarritzen da. Izan ere, aspalditik dator, Jainkoak haserre, gizakiok egindako pekatuengatik jarritako zigorra; noraezean iheska doan jendetzari Jainkoak izurria daramaten gezi-zaparrada jaurtitzen du jakin gabe geziak nor harrapatuko duen. Ideia honen tradizioa oso luzea da, eta ondo errotuta dago Herri-jakindurian. “Iliada”ren lehenengo kantuan agertzen da, ondoren Jacobo Voragineren “Urrezko Leienda”n ere azaltzen da, eta izugarritzko zabalkundea lortzen du XIV.mendetik XVI.menderarteko ikonografian. Guztia geziek ematen dioten parekotasun magikoagatik. San Sebastian geziek sartuta hiltzen zen, dirudi pertsonai santu honek geziez babesten zuela, beraz izurriaz. Horrela suertatu zen San Sebastian izurriaren aurkako patroia VII.mendetik aurrera.

Gizaldien zehar kutsadura epidemikoen izaera eta honi zegozkion erremedioak erlijiotasun arruntaren eta sineskeriaren arteko nahasketa magikoak izan dira. Izurria, astro-biltze negatiboari, lur azpiko emanazioei, aire kutsadurari, kometen eraginari eta batez ere jainkotasunaren haserreari leporatzen zitzaion. 1665ean, Londresen agertu zen kometa batek, berehalako epidemia ekarriko zuenaren sinesteak eta usteak, izu ikaragarria sortu zuen populazioaren artean. Erteuropan eta Europa ekialdean, Silesiatik Transilbania eta Serbiaraino, XVIII. mendean ondo sartuta egon arte, herriak izurriaz babesteko, zirkulu magikoak egiten zituzten herrien inguruan, horretarako emakume gazteak biluzturik, ildo bat zulatu eta ondoren

ildo gainean dantzaten ohi zuten. Goi Erdi- Arotik XIX. menderaino kutsadura urrutiratzeko bereizitasuna zuten santuei izugarritzko kultura eskaintzen zitzaien: erretaulak, kofradiak, prozesioak, irudiak, mihiseak, etab.. Ez bakarrik famatuenei (San Sebastian, San Roke, eta San Karlos Borromeo), baita beste 50 santuei ere.

Sukar horiaren mehatxua zela eta, 1801ean Sevillan, 1649ko izurriaren aurka erabilitako “Lignun Crucisa” ustez erremedio eraginkorra erakutsi zitzaion Giralda aurrean bildutako jendetzari. 1855eko 1885eko eta 1894ko kolera epidemietan, izurriaren zabalkundea saihesteko, edota bere amaiera eskatzeko, hirurrenak bederatziurrenak eta Te Deumak, non nahi ospatu ziren. San Rokek berriro ere kultura berreskuratu zuen. Koleraren indarra moteltzeko, Begoñako Amaren irudiak Bilbo osoa zeharkatu zuen prozesioan, gutxienez 1855ean eta 1894an. 1834an berdina gertatu zen Oñatin Arantzazuko Amaren irudiarekin.

Moralaren haustura (pekatua) = Zigorra gaixotasunarekin, beraz, ezmoraltasun kolektiboa = Izurrite erako zigor kolektiboa. Pentsaera herrikoian errotutako ideia nagusia, gehiegikeri sentsualaren eremuan, “ordenatu gabeko plazerretan” kokatzen da. Horregatik harreman ezaren eta kastitate jarraituaren aldeko predikuak hauek baitziren erremedio ezin hobek izurriteak saihesteko. Ideia hauek sinesgaitza bada ere, behin eta berriro transmititzen dira askoz berandurago arte. 1885eko abuztuan kolera izurritea zela eta Bilbon, Gobernu Zibilak onartu eta Osasun Biltzar Probintzialak argitaratu zuen “Osasun Gidaliburuan” beste medikuntza-gomendio batzuen artean, honela zioen 40. artikulua zekarren: “Deban refrenarse hasta la continencia absoluta los placeres sensuales, porque debilitando el organismo, se encuentra éste falta de energía vital para resistir la enfermedad, caso de invasión. Los jóvenes sobre todo han de tener muy presente esta última precaución para no derrochar inpremeditadamente tan estimable capital, como dice Luis Leraie, los de 25 a 30 deben hacer grandes

economías, y los de esa edad en adelante guardarlo bajo llave.”

Epidemiaren aurkako borroka zientifikoa. Lorpenik handiena eta gaixotasunari aurre egiteko gakoa, prozesuen eta etiologiaren azterketa errazionala egitean datza, ezaguera erlijiosoak eta sineskeriak diotena sinetsi ordez. Eskala historikoan gizakiak hainbat milurteko pasa ditu, aurrekontu azientifiko eta superstiziozkoekin izurriteei aurre egiten; 125urte besterik ez darama borroka zientifikoa. Ildo berri honen lehen urratsak baztangaren erazketan ematen dira. Edward Jenner Sendagile Ingelesak baztangaren aurkako txertoa, hau da, txerto antivariolikoa (behiarena, behi-linfa inokulatu zelako) aurkitu zuen. Edozein modutan lehen urrats hau guztiz enpirikoa (Ur ponpa edo inokulazioa) benetako ezaguera zientifikoa lortzen du, 1860ez geroztik gaixotasunen benetako jatorria eta kutsaduraren eragileak aurkitzen direnean (Pasteur, Koch).

Pertsonen arteko harremanen maiztasuna, pobrezia, bazterketa, “beste”aren kriminalizazioa eta erantzukizuna, izua, superstizioa, eta bekatariari errua botatzea, izan dira egon diren ideiak finkoak mendeetan zehar herio epidemikoari erantzuna emateko. Baliabide kultural hauen proiektzioa egun ditugun pentsatzeko aztertzeko eta erreakzionatzeko epidemia berrien aurrean, HIESa den bezala. Noraino ez gaitu eramaten gure aitona zahar haiek portatzen ziren bezala portatzera? Noraino ez dute eraginik herio epidemikoari aurre egiteko, egiten ari garen saiakera berrian, hau da ikuspuntu razionaletik, zientifikotik eta solidariorik begiratuta?

BIBLIOGRAFIA

**ARIÈS, Philippe:** *La Muerte en Occidente*. Argos-Vergara, Barcelona, 1982.

**ARIÈS, Philippe:** *El hombre ante la Muerte*. Taurus, Madrid, 1983.

**DELUMEAU, Jean:** *El miedo en Occidente, siglos XIV-XVIII. Una ciudad sitiada*. Taurus, Madrid, 1984.

**FAVRE, Robert:** *La mort au Siècle des Lumieres*. Presse Universitaire, Lyon, 1978.

**FEBVRE, Lucien:** “*Histoire des sentiments. La terreur*”. *Annales ESC*, 1951, 520-23.

**MADARIAGA ORBEA, Juan:** *Una noble señora: Herio Anderea. Actitudes ante la muerte en el País Vasco, siglos XVIII y XIX*. UPV-EHU, Bilbao, 1998.

**POUNDS, Norman:** *La vida cotidiana. Historia de la cultura material*. Barcelona, Crítica, 1992.

**VILLAR, Alicia** (ed.): *Voltaire-Rousseau. En torno al mal y la desdicha*. Alianza , Madrid, 1995.

**VITORIA ORTIZ, Manuel:** *Epidemias de cólera en Vizcaya en el siglo XIX*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1978.

**VOVELLE, Michel:** *La mort et l'Occident de 1300 à nos jours*. Gallimard, París, 1983.

## *Emakumeak eta Hiesa*

“**E**makumeak eta hiesa” gaia era ezberdinetan landu daiteke. Artikulu honetan ikuspegi feminista erabiliko dut. Ikuspegi honetatik, gure gizartean gizonen eta emakumeen artean ematen diren ezberdintasun sozialak eta botere ezberdintasunak azalerraten, ikertzen eta beraien ezabatzeko bideak bilatzen dira. Honek ez du esan gura ikuspegi feminista bakarria dagoenik ezta emakume guztiak zaku berean sartzen direnik, beraien artean ere ezberdintasun nabarmenak eta esanguratsuak baitaude, klase sozialaren, kulturaren, adinaren, orientazio sexualaren eta etniaren arabera, esate baterako.

Baina, zergatik eta zertarako “emakumeak eta hiesa” gaia? Ba al dago hiesaren barruan zerbait berezia edo espezifikoak generoa kontuan hartzen badugu? Zer argi diezaguke emakumeen eta hiesaren arteko harremanak aztertzeak? Batzuetan badirudi feministak tematu egiten garela genero ikuspegia edonon topatzen, edo beste modu batera ikusita: edozein bilera, kongreso edo topaketa antolatzen dutenek, ideia aurrerakoiak badituzte behintzat, gai feministaren bat gehitzea derrigorrezkotzat jotzen dute. Artikulu honetan hiesaren inguruko hausnarketek eta ikerketek genero kategoria kontuan hartu beharreko garrantzia erakusten saiatuko naiz.

Hiesari buruzko diskurtsoen eta beraren bilakaera sozialaren azterketak zenbait gauza garrantzitsu erakusten digu, hala nola, gizarte honetan gizonen eta emakumeen buruzko ezberdintasunen inguruan mantentzen diren zenbait ideia eta joera presente daudela eta egon

direla hiesaren kasuan ere bai. Are gehiago, hiesaren gaixotasunaren analisi soziala oso bide ona da gizarte osoaren eta sistema mediko-zientifikoaren kritika eta lan feministaren berrikuspena egiteko, nahiz eta feminismoa orokorrean nahiko itsu eta mutu egon den urte hauetan. Hiesa, abortoa bezalaxe baina ez horren modu ikusgarrian, gizartearen test feminista egiteko oso baliagarria da: zeintzuk diren bizi gareneko genero sistemaren problemak eta aldaketak. Dena den, artikulua honetan ez naiz horrenbeste zentratuko azken aspektu hauetan, baizik eta hiesaren fenomenoaren ulertzeko eta egoeraren diagnostikoa eta interbentzioa (atentzioa eta prebentzioa) hobeto egiteko, kontuan hartu beharko lirakeen ideia eta datu batzuk emango ditudala<sup>1</sup>.

Mila aldiz errepikatu eta salatu dugu feministok azken hamarkadetan zientziari eta medikuntzari buruzko hainbat ideia: zientzia androzentrikoa dela, erabilitako lehentasunengatik, aukeratutako ikergaiengatik eta hipotesiengatik, etab<sup>2</sup>.; sistema medikoa, ondorio baikorrak eta aurrerapausoak ekartzeaz aparte, kaltegarria eta zapaltzailea ere badela emakumeentzat (beste talde sozial batzuentzat bezalaxe), genero zapalkuntzarako sortzaile eta sustatzaile ezin hobea baita; osasun-sareko zerbitzuak erabiltzeko zapalkuntza ekonomikoa eta generikoa ere inportantea dela...

Horrenbeste aldiz salatu ditugunez puntu hauek badirudi iraganeko gauzak direla, gizarteak, zientzilariek, osasun-langileek eta agintariek, orokorrean, aldatu egin dituztela jadanik euren jokabideak, beste gizarte bat daukagula, berdinkorragoa. Eta aspektu askotan hala da, gizartea berdina da, aspektu formaletan batez ere. Zertxobait lortu da baina errealitatea ez da feministek espero genuena, ez gizarte osoaren aldetik ezta sistema mediko-zientifikoan fijatzen bagara ere. Hiesaren inguruan, nahiz eta gaixotasun 'gaztea' izan, gauzak ez dira oso ezberdin joan.

Hiesaren kasuan, emakumeak, kolektibo bezala ezkutaturik

mantenduak izan gara. Ezkutaturik geure sintoma eta ezaugarri bereziak ez direlako kontuan hartuak izan, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezalaxe: emakumeak gaixorik edo kutxaturik suertatzeko aspektu ezberdinak ez dira azertuak eta errekonozituak izan. Ezkutaturik, ikerketa askotan emakumeen analisisia sartu ez, eta gizonekin egindako entsaioetan lortutako emaitzak erabili direlako, emakumeen bizi-baldintza ezberdinak beraien neurrian hartu barik. Ezkutaturik, sistema medikoari eta osasun-langileei, orokorrean, ez zaielako asko inporta emakumeen praktika eta esperientzia sexual propioak: lesbianen kasuan adibidez, baina orokorrean ere ez.

Baina ezkutatzeko hitza erabiltzen dugunean ez gaude soilik esaten emakumeak ez direla agertu. Badaude beste bi elementu aipatu beharrekoak: emakumeak hiesari begira, kutsatzaile bezala izan gara tratatuak batik bat, garraiolari bezala, ez gaixotzeko gai. Hau prostituten kasuan oso nabarmena izan da: kasu gehienetan prostitutak kutsatuak izan dira, gaixotu egin dira (eta hala salatu dute beraiek antolaturiko topaketetan) baina gizartearentzat emakume horien paper kutsatzailea izan da ikusgarriena, premiazkoena. Bigarrenez, emakumeak ama bezala izan gara begiratuak eta horrela jarraitzen dugu gaur egun ere bai; edo hobeto esanda umeak izan dira atentzioa deitu dutenak, emakumeek beraiekiko zeukaten ardura azpimarratu baita, bai zaintzeko, baita eritasuna pasarazteko ere bai (Plaza et. al., 1992).

Hau da, hiesaren inguruan, osasun arloan eta zientzian orokorrean emakumeekin gertatu dena errepikatu egin da, emakumeen kontsiderazioak batez ere bi ardatz izan dituela: lehenik eta behin, emakumeen ikusgarritasunik eza, batez ere beraien rol sozialak eta bizi-baldintzak estali egin direlako, lanen oinarrian egon ohi diren eredu teoriko eta ideologikoengatik. Beste aldetik, emakumeen gain-ikusgarritasuna, hau da, beraien ugalketa-funtzioa bakarrik azpimarratu da beste aspektuak ahaztuz.

## **Ikuspegi koantitatiboa**

Hiesaren agerpenean ematen diren eredu epidemiologiko ezberdinak<sup>3</sup> kontuan hartzen badira dira ere, emakumeen eta gizonen afektazioa ezberdina da<sup>4</sup>:

1.- Lehenengoan (Mendebaldeko Europa, Ipar Amerika, Australia eta Zelanda Berria), gaixotasuna 60en amaieran eta 70en hasieran agertu zen, gizonen kutsadura altuagoa izanik. Kutxaturiko populaziorik garrantzitsuenak: gizon homosexualak, drogamenpekoak eta odol-transfusioengatik kutsatuak (85. urtera arte azken hau).

Gaur egungo datuen arabera, Estatu Espainiarrean 1999ko martxoan arte, 39.215 hies kasu iragarri dira. Hauetatik, %18.75a emakumezkoak. 1998an, harreman heterosexualen bidez sorturiko kasuak, %20.3a izan ziren.

Euskal Herrian, emakumeen afektazioa pixka bat altuagoa da: Euskal Autonomi Erkidegoan, 2.386 kasuetatik 1994an, %77.5a gizonezkoak dira eta %22.5a emakumezkoak. Nafarroan berriz, 1986-1996 tartean, 479 kasu egon ziren, emakumezkoenak 132 (%27.55a).

2.- Bigarren eredu hirurogeitamarretan agertzen da, Sahara azpiko Afrikan eta Kariben. Bertan, gizonen eta emakumeen portzentaiak berdina dira eta populazio kutsatuak heterosexualak dira, umeen gaixotzea eta odol kutsatuaren garrantzia oso handiak izanik.

1999ko datuen arabera, Afrikan emakume infektatuen kopurua %55a da: 12.2 milioi emakume afrikan eta 10.1 milioi gizon, munduzifra osoen %66.3a, Nazio Batuen eta OME-ren 1999ko datuen arabera. Eredu honetan, hiesak eragin erabatekoa dauka. Hego Afrikan, adibidez, bizitza esperantza 44tik 59 izatera pasatu bada

1950-1990 urte tartean, 2005-2010 urte tartean 45era izatera bueltatuko dela pentsatzen da.

3.- Hirugarren eredia berriz, lauogeien hasieran ematen da, Asian, Pazifikokoan, Ekialdeko Europan, Ipar Afrikan eta Ekialde Erdian. Ez daukagu zona hauetako datu askorik, baina prebalentzia baxua<sup>5</sup> da .

4.- Honetaz aparte badaude eredu mistoak: I eta II ereduen nahasketa bat, adibidez, Latinoamerikan ematen da.

Guzti honetaz zer ondorio atera daiteke? Mendebaldetik kanpoko datuei begiratzen badiegu, emakumeen afektazioa handiagoa dela gizonena baino. Hau da, ikuspegi etnozentrinoa eta mendebaldezentrinoa erabiltzen badugu, ez dugu ikusten gaixotasunaren benetako garrantzia eta afektazioa mundu ezgaratuan dagoela eta bertan emakumeak gehiengo direla. Beste aldetik, Hego Euskal Herrian ere, emakumeen kopurua proportzionalki gora doa, eta kasu guztietan emakumezkoen populazioa gizonenak baino gazteagoa da. Nafarroan adibidez, 1989tik 1993ra bitartean, hilkortasun tasa 100.000 emakumeekiko %1.5etik %5.8ra gehitu zen<sup>6</sup>. Euskal Autonomi Erkidegoan berriz, 25-29 adin-tarteko emakumeen artean lehen hilkortasun kausa hiesa da (Audicana, 1998:30).

### **Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak**

Zeintzuk dira emakumeen berezitasunak? Orokorrean ez zait gehiegi gustatzen emakumeen berezitasunez hitz egitea, hitz hau erabiltzeak emakumeak berez ez ohikoak garela eta normatik apartatzen garenok geu garela eta gizonak gizakien eredu direla adiera ematen duelako. Hau da, artikulua honetan berezitasunez hitz egitea gauza batzuk ikusgarri egiteko bidea hartzea baino ez da.

Gaur egun honako hau frogatua izan da eta horrela agertzen da

argitalpen guztietan<sup>7</sup>: emakumeen hiesarekin erlazionaturiko sintomak eta problemak ez dira beti gizonenak bezalakoak, eta berdinak direnean ez dira beti modu berean agertzen. Adibidez:

- Kutsatua zareneko momentutik eritasuna agertzen deneko tartea laburragoa da emakumeentzat, eta biziraupena ere baxuagoa da. Eta momentuz ez dakigu zehazki zergatik.

- Beste aldetik, hiesa genitaletatik sartzen deneko eritasuna izanik, emakumeengan era diferenteak ematen dira. Orain badakigu zenbait problema ginekologiko, emakumeenak bakarrik diren problemak beraz, hiesarekin erlazionaturik daudela: infekzio pelbikoa, zenbait baginitis kronikoak, utero-zerbisaren minbizia, hilerokoaren aldaketak, etab. Ez du horrek esan nahi horiek aurkezten bazaizkizula hiesa duzunik, ezta gutxiago ere (tuberkulosia edo neumoniaren kasuan bezala) baizik eta kutsatuen artean proportzio altuagoetan eta garrantzia handiagoa dutela eritasun hauek.

- Transmisio sexualaz ari garenean, adituek gero eta garrantzi gehiago ematen diote baginaren eta genitalen egoerari, zeren egoera ona bada hori babes ezin hobeagoa da birusari aurre egiteko. Eta horregatik emakume seropositiboek besteek baino analisi eta froga ginekologiko gehiago egin beharko lituzkete.

- Azkenez, konprobatua dago harreman heterosexualetan errazagoa dela transmisioa gizon batengandik emakume batengana alderantziz baino (1.9 bider handiagoa).

Zergatik hau guztia? Ez dakigu, baina arrazoi ezberdinak erabiltzen dira azalpen modura:

- Momentuz, gizonak dira kopuru aldetik afektatuenak eta horrek erraztu egiten du emakumeen kutsadura (zailagoa da gizon batentzat

emakume kutsatu bat topatzea).

- Birusa oso ongi bizi da semenean, semenaren konposaketa oso aproposa baitzaio, zelula konkretu batzuk dituelako. Baginaren isurietan ere bai, baina ez horren ondo.

Erabili izan diren beste arrazoi batzuk hauexek dira: hormonekin erlazionaturiko faktoreak, aspektu anatomikoak, sexualitatearekin loturiko jarrerak (emakumeen paper pasiboa eta gizonen aktiboa).

Dena den, ez dakigu zehazki zergatik transmisio heterosexuala arriskugarriagoa den emakumeentzat eta momentuz ezin dugu zergatiaz oso ondo hitz egin. Hala ere, azpimarra daiteke askotan erabilitako arrazoiak (esate baterako, sexualitatearekin loturikoak) gizonei eta emakumeei buruzko estereotipo sozialen eskematik sortuak izan direla eta irakurketa topikoak jarraitzea inplikatzan dituztela, emakumeen osasunaz eta gorputzaz hitz egiterakoan erabiltzen diren berberak erabiltzen baitira.

Edozein kasutan, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak, klinikokoak eta fisikoak izateaz aparte, sozialak ere badira, edo hobe esanda, batak eta besteak elkar erlazionaturik daude, erabat uztarturik, eta zaila da mugatzea noraino diren sozialak edo noraino bestelakoak. Eta hau kontuan hartu beharreko gauza inportantea da.

Esan dugunez, orokorrean munduan, esaten genuen aurretik, hiesak emakumeak erasotu ditu, emakume pobreak eta zapalduenak gainera. Zergatik? Bizi-baldintza sozio-ekonomikoak askoz larriagoak dituztelako emakume hauek, osasun sareko zerbitzuak jasotzeko aukera gutxiagorekin, autonomia gutxirekin beraien erabakiak hartzeko, nahiz eta umeez eta familiaz beraiek izan ardura osoa. Emakume hauentzat askotan euren bizitzaren problemarik garrantzitsuena edo behin-behinekoa ez da inolaz ere hiesa. Eta beste

aldetik oso barreiatuak egoten dira, ez dira egoten inolako elkarte edo erakundetan sarturik.

Beste aldetik, orokorrean ere, argi dago emakumeek gizonek baino zailtasun handiagoa dutela sexu ziurra negoziatzeko, arrazoi ezberdinengatik: baliabide faltagatik edo harremanetan emakumeek sufritzen duten menpekotasunagatik.

Eta azkenik, martxan jarri diren prebentzio estrategiek gehienetan ez dituzte aipaturiko elementu hauek kontuan hartu.

### **Kolektibo batzuen ekimenak: prostitutak eta lesbianak**

Aspaldi daude emakumeak hiesaren inguruan lanean: prostitutak, gizon homosexualen lagunak, feministak, lesbianak, etab., gai orokorretan zein beraiei dagozkien zehatzetan, gehienetan hiesaren kontrako elkarteetatik. Koantitatiboki hiesaren aurka borrokan dauden pertsonak, kutsatuak direnak aparte utzita, emakumezkoak dira portzentaia handiagoetan, bai borondatezkoen artean, baita zerbitzu mediko edo sozialetan.

Hala ere, genero ikuspegia ez da beti erabilia izan eta feministek ez dute hiesari dagokion lekua eskaini. Artikulu honetan, bi emakume kolektibo ezberdinen lana aipatu eta azpimarratu nahi dut: prostitutena eta lesbianena. Bi talde hauek egindako lanek isla, garrantzi eta proportzio ezberdina dute, baina lan horretan badira oso interesgarriak iruditzen zaizkidan zenbait gauza.

#### ***Prostitutak***

Hiesaren inguruko burrukak eta ekintzak prostituten elkartze eta politizatzearekin batera etorri dira. Azken urteotan zenbait nazioarteko kongresu antolatu dute prostitutek euren eskubideen alde eta leku

askotan prostitutak eta feministak batu egin dira burruka honetan. Prostituten lanaren ardatz oso inportantea euren osasunaren babesa izan da, eta honen barruan hiesa eta sexu bidezko eritasunek aparteko lekua izan dute. Beraiek izan dira beraien arriskua azpimarratu duten bakarrenetariakoak, eta eskema klasikoari, hau da, 'gizonak/bezeroak biktima eta prostitutak kutsatzaile' eskemari buelta ematen saiatu diren bakarrenetariakoak.

Leku gehienetan prostitutak erasotuak izan dira hiesagatik<sup>8</sup>. Aldiz, bezeroen ardura garraiolari modura, alde batera utzi da. Beste aldetik, askotan prebentzio mailan martxan jarri diren kanpainak eta ekitaldiek prostitutak defendatzea baino erasotu edo gutxienez kontrolpean jartzea lortu dituzte<sup>9</sup>. Prostituten kontrol honen ideia borobiltzeko beste adibide bat emango dut: sexu bidezko eritasun bat topatzen denean kontsulta mediko batean, jarraipena ez zaio bezeroari egiten prostitutari baino.

Zentro feministetatik eta hiesaren kontrako batzordeetatik ere, nahi gabe askotan eskema hauetan jausi da: kanpainak prostitutengan zentratu dira eta kanpaina ofizialen babesle izan gara, nahiz eta filosofia orokorra kontrakoa izan.

Irtenbideak aldiz, bestelakoak izan beharko lirateke eta bertan prostitutek benetako protagonismoa izan beharko lukete, prebentzioari begira eta sexualitate heziketari begira, hain zuzen.

### ***Lesbianak***

Emakumeen beste talde baten lan esanguratsua lesbianena izan da. Ez lesbianen talde guztiena, zeren honetan lesbianak erabat erdibituta baitaude. Batzuen irudiko, hiesak oso arrisku gutxi suposatzen du beraiantzat eta gaia ez dago beraien lehenasunen artean. Arrazoa badute maila batean zeren emakumeen arteko transmisioa, momentuz behintzat, ez da batere garrantzitsua (oso kasu gutxi aipatzen dira

literaturan)

Beste lesbiana talde batzuek aldiz kontrakoa pentsatzen dute eta ekintza garrantzitsuak eramaten ari dira honen inguruan. Adibidez, sexu ziurreko tailerrak antolatu izan dira lesbianeiei eta emakumeei orokorrean zuzenduta non bideo erdi erotiko erdi pedagogikoen bidez praktika ziurrak azaltzen zaizkien eta emakumeen arteko sexualitateaz hitz egiten den<sup>10</sup>.

Bigarren hauentzat lesbianismoaren harremana hiesarekin ez da soilik arrisku baxua ala altua izatea. Gainera, lesbianek kasu askotan gizonekin ere mantentzen edo mantendu izan dituzte harreman sexualak, eta badira ere euren artean zainen bidezko droga erabiltzaileak, nahiz eta medikuak askotan emakumeen sexualitateari buruz ezer gutxi jakin.

Lesbianak egiten ari diren lana lesbianismoa plazaratzeko eta normaltzeko balio izaten ari da. Sexualitateari buruzko eztabaida eta diskurtso orokorrek momentu honetan hiesarekin lotura estua dute (hiesaz hitz egitea sexualitateaz hitz egitea baita maila batean), eta beraiek eztabaida eta diskurtso horretan presente egon behar dute, ez soilik zokoan edo ezkutuan ez gelditzeko, baizik eta beraien esperientziak eta ikuspegiak garrantzitsuak direlako.

Bai prostitutek baita lesbianek ere badute zer esan eta zer egin. Beraz inportantea izan daiteke beraien ekarpena, emakume guztienarekin batera.

### **Prebentzio estrategien inguruan bi hitz**

Amaitzeko, prebentzioarekin loturiko beste gauza batzuk gehitu nahi nituzke.

### *Sexualitatea, amodioa eta hiesa*

Hiesaren prebentzioa dela-eta, lan handia egin da sexualitateaz, bai diskurtso eta ideia hegemonikoak kritikatzuz baita praktika eta esperientzia zehatzen eta ezberdinen inguruan. Baina, sexualitatearen, maitasunaren eta hiesaren harremana ez da guztiz landu.

Harreman heterosexualetan zentratzen bagara batez ere, sexualitate gaia oso era aseptikoan izan da aztertua, sakondu gabe. Gainera, sexualitateaz hitz egin da baina maitasunaz askoz gutxiago eta biak daude loturik hiesarekin. Sexualitatea eta amodioa nahita banatu ditugu sektore sozial ezkertiarretatik eta feminisमतik, baina gero amodioaz ahaztu egin gara eta hiesari buruz zerbait egiteko bie buruz hitz egitea behar beharrezkoa da, zeren bestela ez baitago prebentzio efikazik.

Dena den, sexualitatearekin eta maitasunarekin jarraitu baino lehen, hiesaren prebentzioan nahasten diren eta beraiekin harreman estua duten beste elementu batzuk aipatuko ditugu:

- Mediku askoren eta sistema mediko osoaren ikuspegi androzentrikoa eta sexista gizonen eta emakumeen jokaerak aztertzeko eta beraiei aurre egiteko. Askotan, hiesaren gorabeherak pertsona indibidualak baina bikoteak eta familiak eragiten dituzte eta mediku askok gizonen alde agertzen dira.

- Familiaren inguruko ideologia hegemoniko kontserbadorea, zeinen arabera gizonen eta emakumeen harremanak, rolak, lekuak, ardurak, eskubideak, etab. eraginda dauden. Hiesaren inguruko azken muturrerainoko prebentzioak familiaren ideologia nagusia kolokan jartzen du, eta ez dakit noraino gizartea, osasun langileak eta guztiok orokorrean prest gauden hori horrela onartzeko eta aldatu dadin zerbait egiteko.

Gai zailez eta konplexuez ari garela ezin ukatu, baina benetako prebentzioa egin nahi bada aurre egin beharko diegu, eztabaida sortu eta irtenbideak topatu.

Nola ulertzen da sexualitatea eta maitasuna gure kulturean? Orokorrean, sexualitatea desioen menpe ikusten dugu, eta maitasuna sentimenduen menpe. Are gehiago emakumeen eta gizonen arteko harremanez eta beraien arteko ezberdintasunez hitzegiten badugu: sexualitatea eta maitasuna irrazionalitatearen esparruan dauzkagu kokatuta. Dena den, honetan ere paper ezberdina dugu emakumeok, zeren emakumeak ezkontrolatuago agertzen gara maitasunaren aurrean, pasibo (eta gizonak aldiz aktibo) baina gizonak baino irrazionalago. Gizonak aldiz kapazago ikusten ditugu. Edo horrela dio ideologia nagusiak. Beharbada praktikan gauzak ez dira horrela suertatzen beti.

Era honetan, kontrolik eza, arrazonamendurik eza, irrazionaltasuna azpimarratzen da, eta askoz gutxiago negoziatzea, paktuak egiteko eta desegiteko dimentsioa, arrazoiaren dimentsioa. Amodioa, maitemintzea, sexualitatea eta desioa bezala, kulturalak dira, kultura barik ez genuke jakingo nola aritu. Ikasi egiten dugu eta ideia hau garrantzitsua da prebentzioari begira, are gehiago askotan kutsatzen zaituena edo kutsatzeko arriskuan jartzen zaituena, maite zaituena (edo maite zaituenaren paperean) dela jakinda.

### **Gizonen ardura non?**

Prebentzioaz hitz egiterakoan ondorio argi bat azpimarratu behar dugu: martxan jarritako prebentzio-estrategiek ez dute oso fruitu onik eman, heterosexualean artean batez ere. Beste aldetik, pobreak eta baztertuak dira eraso gehien jasotzen ari direnak.

Prebentzioaren ezaugarri oso inportantea norengan botatzen den

ardura da: ardura hau, orokorrean, harreman heterosexualei dagokiela behintzat, emakumeengan jausten da. Baina hemen eskema sexualitatearen gaian mantentzen den kontrakoa da: emakumeak sexualki pasibo baina zaindari bezala oso aktibo ikusten dira geure gizartean; gizonak aldiz kontrakoak: sexualki erabat aktibo, beraien inplutsoen menpe eta batere ardurarik gabe bestelako funtzioetan<sup>11</sup>. Eta hau desoreka nabarmena da, ez bakarrik gauzak guztien artean egitea juxtuagoa delako, baizik eta prebentzio-neurri inportanteena preserbatiboa delako momentu honetan. Beraz, jende gaztea, baina batez ere mutilak, ideia honetan heziak izan beharko lirateke: beraiena ere badela ardura, edo behintzat ardura-erdia.

Baina harutzago joanda, zergatik ez zuzendu kanpainak gizonen (heterosexualei esan nahi dut), zergatik ez lan egin zuzenean gizonekin edo gizon talde batzuekin? Mezu orokorrak erabiltzen jarraitzen diren bitartean eta zainketa arloan gizonen rol pasibo hori kolokan jartzen ez den bitartean, gizonak ez dira inplikatuak sentituko. Lan honetan, bi talde identifika eta nabarmen daitezke: gazteak, aurretik esan dugun moduan, eta prostituten bezeroak. Badakigu prostituzioaren bezeroak identifikatzea eta homogeneizatzea oso zaila dela, eta horretaz aparte, beraiekin lan egitea gaitza ere badela. Baina argi dagoena da ez direla apenas saiorik egin, prostituten bidea erabiltzeaz aparte, eta talde horren prebentzioa gizarte osoari dagokio, ez prostitutei bakarrik.

Prebentzioari begira, beraz, artikuluan aipaturiko aspektu askorekiko neurri berean, genero ikuspegia kontuan hartzea, bai egoera azterketak egiterakoan baita interbentzioak planifikatzerakoan, ezinbestekoa bihurtu dela uste dut.

## OHARRAK

- 1** Gai honetaz aurretik ere aritu izan naiz: lehenengoz, *Euskal Herriko Unibertsitatean, 1991-1993 ikasturteetan antolatutako "Sistemas de género y construcción-deconstrucción de la desigualdad" izeneko master barruko "Género y salud" ikastaroan. Bigarrenez, 1994. urtean Udako Euskal Unibertsitatean emandako hitzaldian.*
- 2** *Osasun eta osasungintza barruan feministek egindako lanaren ikuspegi orokor bat jasotzeko, begi Esteban (1994/96).*
- 3** *Eredu hitzaren bitartez eritasuna agertzeko era adierazi nahi da.*
- 4** *Datu hauen iturriak hauexek dira:*
  - *Panos Institute (1995), datu orokorretarako.*
  - *"El balance anual del SIDA se cierra con un nuevo récord de víctimas" artikulua (7 Días Médicos, 425, 99ko Abenduak 10, 20-22). Artikulu honetan, Nazio Batuen Programa Bateratua eta OME delakoan 1999ko datuak argitaratzen dira.*
  - *Nafarroako datuak: Situación social de las mujeres en Navarra. Evolución y tendencias de cambio 1975-1996 Ikerketa (Documento nº 3, Análisis de Resultados, 1997: 266-268), Instituto Navarro de la Mujer delakoak subentzionatuta eta Blanca Fernández Viguera soziologoak zuzenduta.*
- 5** *Gaur egun, kasu berrien kurba markatuena Sobiet Batasun ohiaren estatu independente berrietan ematen ari da (Panos Institute, 1995).*
- 6** *286.7%eko aldaketa bost urteetan, Estatu Espainiarrean (231.5% baino gehiago). Begi aurretik aipaturiko ikerlana, 169. Orr.*
- 7** *Genero eta hiesari buruz hurrengo liburuak kontsulta daitezke: Doyal; Naidoo; Wilton (1994); Panos Institute (1995); Patton (1994); Plaza et. al. (1992). (Eskerrak Koldo Martinez Urionabarrenetxea-ri bibliografiagatik).*
- 8** *Prostituten eta hiesaren arteko harremanei buruz, oso interesagarria da Regina Medeiros-ek Bartzelonan egin duen ikerketa (2000).*
- 9** *Begi Otegi (1999)*
- 10** *Euskal Herrian, Bilbon dagoen Aldarte zentroa (gay eta lesbianen eskubideen aldekoa) da honetan erreferentzia nagusia.*
- 11** *Homosexualek aldiz, eta honetan beste gizonetatik apartatzen dira, oso lan aktiboa egin dute, bai prebentzioan baita afektatuen zainketan.*

BIBLIOGRAFIA

**AUDICANA, Covadonga** (Registro de Mortalidad del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco): *"Estado de la salud de las mujeres en el País Vasco. Análisis de la mortalidad diferencial". Las mujeres en el ámbito urbano. Salud y calidad de vida.* Bilbao: OP-Osasun Publikoaren aldeko Elkartea, 1998, 29-42. orr.

**DOYAL, Leslie; NAIDOO, Jennie; WILTON, Tamsin:** *AIDS. Setting a Feminist Agenda. Gender and Society. Feminist perspectives.* London: Taylor & Francis Inc., 1994.

**"El balance anual del SIDA se cierra con un nuevo récord de víctimas"**, 7 Días Médicos 1999, 425:20-21. orr.

**ESTEBAN, Mari Luz:** *"Relaciones entre feminismo y Sistema Médico-Científico".* Kobie. Serie Antropología Cultural 1994/96, VII. Bilbao: Diputación Provincial de Bizkaia, 17-39. orr.

**MEDEIROS, Regina de Paula:** *Hablan las putas. Sobre prácticas sexuales, preservativos y SIDA en el mundo de la prostitución.* Barcelona: Virus, 2000.

**OTEGI, Rosario:** *"La construcción social de las masculinidades".* Política y sociedad 1999, 32:151-160.

**PANOS Institute:** *Triple riesgo. Mujeres y sida.* Barcelona: Icaria, 1995.

**PATTON, Cindy:** *Last served? Gendering the HIV Pandemic.* London: Taylor & Francis, 1994.

**PLAZA, Monique et. al:** *Femmes, sida et discours médical.* Rapport de recherche, 1992 (argitaratu gabea).

**Situación social de las mujeres en Navarra. Evolución y tendencias de cambio 1975-1996** (Ikerketa memoria), 3. Dokumentua (Análisis de Resultados), 1997.



*Sexua eta Hiesa.*  
*Amodioa hiesaren garaian*

**L** aurogeigarreneko hamarkadaren hasieran talde amerikar integristak pozik zeuden Jainkoak bekatari higuigarrienen aurka bere haserrea jaurti zuelako, mundu honetatik behin betirako bekatu zikinena eta iraingarriena ezabatzeko asmoz. Hasiera batean "minbizi gaya" deitua izan zenak gizonezko homosexualen aurkako madarikazioa zirudien. Dena dela laster deskubritu zen Haitiko bizilagunak ere ikutzen zituela, bai eta heroinazaleak eta hemofilikoak ere. Ondorioz, lau hatheen gaixotasuna birbataiatu zuten, eta arriskuko taldeen kontzeptua sortu zen. Errakuntza galanta, gaixotasunaren jatorriari buruzko ikerkuntzek eta pandemiaren garapenak azaldu digutenez.

Edozein kasutan, aspalditik kondenatuta dagoen Afrikaz landa, non hiesak bere jatorria izan zuen eta non egun hogeitabi milioi biztanle kutsatuta dauden, "lehenengo mundua" deitzen dugun gune geopolitiko-ekonomikoan San Frantziskoko komunitate homosexuala izan zen hiesaren lehenengo biktima eta, gaixotasuna erasotzeko lehenengo botikak aurkitu bitartean komunitate horretako milaka lagun hil ziren pandemiak jota. Horrek guztiak izugarritzko shocka eragin zuen mundu osoko gizonezko homosexualengan. Ez dut uste oker nabilenik esaten badut homosexualak direla ikusmolde unibertsal areagotuena duten gizakiak, eta, horrenbestez, informazioa eta bizitza ohiturak eta iharduerak ziztu batean zabaltzen dira gayen artean munduko punta

batetik bestera. Ondorioz, hiesaren inpaktuak sexu harremanen esparruan eragin zituen aldaketak berehala nabarmendu ziren homosexualengan edozein zelarik horien bizilekua.

Ni garai hartan hasi berria nintzen sexu kontutan, adoleszentzia garaiko traumak eta blokeoak alde batera utzita, eta sekulako biraoak bota nituen dastatzen hasi nintzen mundu ez-titsu eta dirdiratsu hura beltz eta mehatxukor bilakatu zenean. San Franziskoko hesiak berehala gaititu zituen hiesak, eta gaixotasun ezezagun bezain hilgarri hark laister ikutu zituen homosexual europarrak, eta ambiente homosexualerako zirkuluetan lehenengo kasuak ezagutzen hasi ziren.

Sorpresa handia hartu nuen jendeak hiesaz oso gutxi hitz egiten zuela egiaztatu nuenean. Iruditzen zait homosexualok oso barneratuta dugula gure amodioak derrigorrez oztopatsua eta mingotsa behar duela izan, gizarte zirkunstantzia homofoboak medio, eta implizitoki guztiok zera esan genion geure buruari: tira, oztopo bat gehiago. Nire iritziz, homosexual frango -aztertzen ari garen garaian gaurregun baino gehiago- nolabaiteko bikoiztasun batek gobernatzen gaitu: inposatutako gizarte normaltasunean mugitzeko rol heterosexual baten arabera plazaratzen gara, homofobia saihesteko eta gizartean amituak izateko helburuz; zirkulu homosexualetan, aldiz, lehenengo alor horrek sortzen digun errepresio, automarjinazio eta angustia guztia orekatzeko, konpentsatzeko eta ezabatzeke, farreaz, ludismoaz eta luxuriaz osatutako rol gaya erabiltzen dugu. Nola utzi sartzen zoriontasun iturri behar duen ambienteko komunikazio guneetan agente hiltzaile bati?

Horrez gainera, hiesa Europara iritsi zenerako kutsadura bideak ezagunak ziren, eta preserbatiboa erabiltzearekin arriskua uxatu egiten genuela bagenekien. Hartaz, hiesa norberaren arazoa zelako ustea zabaldu zen, ez zen taldean komentatu beharrik. Gay aktibistek, gainera, informazio kanpaina ugariak egin zituzten, eta informatuta

egon nahi zuenak bazuen Montaigner doktoreak adina jakiteko aukera.

Gizarte heterosexistak amodio homosexuala getto batean itxita edukitzeak bazituen bere abantailak. Desira eta maitasuna araupetzen dituzten gizarte erregeletatik at bizi zen bi gizonen edo bi emakumeren arteko sexualitatea, eta, ondorioz, askatasun askoz handiagoz bizi zen zalantzarik gabe.

Ezinbesteko gertatu zen, alabaina, lehen esan bezala, hiesak eragina izatea amodio homosexualaren alorrean. Nago hiru moeta nagusitan sailka genitzakeela emandako erantzunaren araberrako giza taldeak: a) berdin-berdin jarraitu zutenak, neurri profilaktikorik hartu gabe, batzuk bere errealizazio pertsonalerako sortu zen oztopo berriari askatasun gordinarekin desafio egin nahian, beste batzuek errusiar erruletaren jokua praktikatzeko aukera paregabea aurkitu zutelako, beren inpultsu masokistak elikatuz; b) preserbatiboa erabiltzen hasi zirenak, sexu harremanen intentsitatea eta edukina nabarmenki aldatu gabe; c) sexuarekiko jarrera eta iharduera aldatu zutenak.

Hirugarren talde hau uste baino ugariagoa izan zelakoan nago. Horren barruan azpisailkaketak ere egin litezke, mutur batean abstinentzia sexualera jo zutenak aipa genitzakeelarik (zeintzuentzat, segur aski, hiesa aitzakia ezin hobea izan baitzen urteetan pilatutako errutasun eta/edo bekatu sentimenduak zuritzeko edo astintzeko Elizak gogor kondenatzen zuen amodioari muzin eginez) eta bestean bikote iraunkor eta monogamoaren ereduak besarkatu zutenak.

Berrogei urtetik gorako gayen artean ezkontza-ereduak ez du arrakastarik izan, eta gutxi dira eredu horretatik ondorioztatzen den bikote-harremanen esparru pean bideratzen dutenak beren sexualitatea. Aldiz, aipatu urteetatik beherakoek gero eta maizago jotzen dute bikote-harreman iraunkorrak sortzera. Gay eta lesbianen elkarte inportante batzuek egindako ikerketen arabera, komunitate

gay-lesbianoan (aparte utzita, beraz, armairu barruan pipiak jota daudenak), aipatu adinetik beherakoen artean, ehuneko 60, gutxi gora behera, parekatuta bizi dira. Esan daiteke amodio eta sexualitate homosexuala heterosexualen paradigmatara hurbiltzen ari dela. Nago hiesari beldurrak eragin handia izan duela bilakaera horretan. Ez da faktore eraginkor bakarra izan, noski, baina ezin uka sexualitate homosexuala ez dela berdin bizitzen eta praktikatzen hiesa azaldu baino lehen eta pandemiaren ostean.

Beste kontua da nola bateratzen diren batetik, subkultura gayean errotuta dagoen sexuarekiko askatasun eta aniztasun zabala eta ugaria (puritanoen hitzetan promiskuitatea), eta, bestetik, ezartzen ari den ezkontza-ereduaren subkultura, zeinak, guztia esatearren, gizonarentzat amorantearen figura hipokresia handiz onartzen baitu edo, behinipehin, ez arbuiatzen. Bi ereduaren arteko topaketak sexologiari ekarpen interesgarriak egin diezaizkioken konportaera eta fenomeno berriak sortu ditu. Bikote-sistema aukeratu dutenen artean badira sexua bikotearen esparrura eskusiboki mugatzen dutenak, baina, aitzitik, beste batzuk bikoteaz kanpoko sexu-harremanak amititzen dituzte. "Bikote itxia" eta "bikote irekia" kontzeptuak zabaltzen ari dira, azpiero desberdinak deskribatzeko (lehen aipatu dugun ikerketaren emaitzen arabera, parekatuta bizi direnen artean erdiak bikote itxia hautatzen du eredutzat, eta beste erdiak, berriz, irekia). Bigarren honi helduz, esan behar dugu ez gara lehen aipatutako amorante klasikoaz ari, zeina emazteari ezkutatu egiten baitzitzaion. Gehienetan, sexualitatea bikotearen hesitik kanpora eramatea bikotea osatzen dutenen erabaki komuna izaten da, eta kasu askotan biek batera praktikatzen dute gainera, hirukoak edo bikote bikoitzen arteko hartuemanak ahalbidetuz. Horretaz aparte, aurrerago aipatuko ditugun sexualitate-forma berriak praktikatzen hasi dira.

Orain artean, gizonen arteko sexualitateaz bakarrik jardun naiz, gainerako sexu aukerak, hots emakumeen artekoak eta gizonen eta

emakumeen artekoak, alderatuz. Hiesa mundu aberatsean homosexualitateari lotuta azaldu zitzaigun, eta, oraindik ere, horrela dirau jende askoren buruan. Hori dela eta, iruditzen zait hiesak sexualitate homosexualean izan duela eraginik nabarmenena. Sexualitate lesbianoa eta heterosexuala ez dut uste horrenbeste aldatu direnik eta, edonola ere, lehenengoaz esandakoa baliozkoa da beste bientzat, ondoren aipatuko ditugun sexu-modalitate berriei dagokienean. Praktika sexual edo "parasexual" berriak konbinazio sexual guztientzat baliagarriak direla uste dut. Praktika horiek neurri handi batean hiesak sortu duen beldurran dute jatorria, baina beste faktore batzuen eragina nabarmena da, bereziki belaunaldi gazteenengan sustraitzen ari den balore-sistema eta ideologia neokontserbadorea, zeinak indibidualismoa eta puritanismoa baititu zutabe (hor dugu, adibidez, Estatu Batuetan zabaltzen ari den ezkontzaurreko birjintasunaren aldeko joera. Laster birjintasun frogak ikusiko ditugu ezkontzaren inguruan sortzen den parafernaliaren barruan!)

Gatozen aipatu ditugun sexu eremu berriak aztertzeraz. Batzuk praktika zahar/berriak, edo zaharberrituak direla esan beharko genuke. Adibidez, ezkontza-ereduaren nagusitasunaren eskutik instituzio zahar honi lotetsitako fenomenoak birloratu dira. Bereziki amorantea eta prostituzioa. Lehenengoari bagagozkio, forma berriak hartu ditu. Orain ez da ohikoa pertsona bakarra izatea amorante finko eta iraunkortzat. Hobe aniztasuna, konpromisua ahula delako, eta horrek bibentzia gehiago izateko aukera ematen duelako. Gaurregun, bestetik, amorantea ez da gizona eskubide kontsuetudinaria; emakumeek ere dastatu nahi izaten dute.

Prostituzioak ere izan du eboluzioa. Prostituzio etxe klasikoek bizirauten dute, baina honekin batera turismo sexuala eufemismoaren atzean ezkutatu den errealitatea dugu, edo eta ziberprostituzioa, internet sarean agertzen diren iragarkien eta sexuaren profesionalen

web orrialdeen eskutik. Prostituzioaren munduan hiesa guztiz present dago, jakina, eta profesionalek zein bezeroek preserbatiboa erabiltzea derrigorrezkotzat hartzen dute. Baina, zoritxarrez, preserbatiboa eragotzea exijitzen duen bezerorik badago, eta beharrak eraginda horretara makurtzen den neska-mutilik ez da falta.

Hiesak sexualitate ez fisikoa deienezakeen mundua erditu du, non harreman virtualak eta fantasiakoak baitira nagusi. Aipa ditzagun jarraian gisa horretako sexu moeta berriak:

1.- Sexu telefonikoa. Linea erotikoak izendatzen direnak izugarri ugalduta dira. Masturbazio edo onanismoaren bariante horrek abantaila ukaezinak eskeintzen dizkio osasun arriskuak -eta edozein eratako konpromisua- ekidin nahi duenari, bai eta, noski, telefono enpresei.

2.- Zibersexua. Internet sarean izugarria da txateoa deitzen denak duen arrakasta. Txateo erotikoaz ari gara, noski. Web orrialde askok eskaintzen dute zerbitzu hau, zeinaren arabera nahi duen orok harbaitezake parte elkarrizketa virtual gune batean, fantasia eta hitz erotikoen bidez elkarri desira sexuala elikatzeko. Taldean hasten dena, bitariko elkarrizketa bihur daiteke mekanismo bat aktibatuz gero. Hauetariko topaketa virtual batzuek ostean ezagutza fisikoa dakarte, baina esango nuke minoritarioa dela suposamendu hau. Gehienak maila virtualean agortzen dira, kasu askotan txateatzeko pertsonaia virtual fikziozkoa sortzen duelako protagonistak, atzean duen errealitatearekin zerikusia ez duena. Berrogeitamar urteko efebo hilehori asko ari da sarean nabigatzen.

Zibersexuaren bigarren adierazpen bat kontaktua dira. Teknika zaharra da hau. Lehen aldizkariaren bitartekaritzaren bidez egiten zena orain posta elektronikoaz egiten da. Lehen anonimatoa izen faltsu batekin eta postakutxa baten bidez babes bazitekeen, orain interneteko enpresa zerbitzari askok beren esparruan sortutako buzoiei esker

manten daiteke. Ene aburuz, aurreko kasuan bezalaxe, harreman asko posta elektronikoaen zimurretan hiltzen dira, bidean zenbait masturbazio saio ahalbidetu eta gero.

Aurki zibersexuak urrats erraldoia emango du. Badirudi "alter ego" virtual bat sortu ahal izango dugula, eta hori eta gure idolo sexual baten klon virtuala gure borondatearen arabera maneiatu ahal izango ditugula, ordenagailuaren pantailan elkari larrua jo araziz gure fantasia erotikoak gauzatu. Horri iharduera sexualak sortzen dituen ondorio fisiko eta kimikoak sentitzeko aukera erantzen badiogu, kasko eta sentore berezien bitartez, esan beharrik ez dago bakarkako sexualitateak dimentsio paregabea ezagutuko duela.

3.- Exibizionismoa eta voyeurismoa. Praktika zaharrak dira, baina izugarriko gorakada izan dute azken urteetan. Gorputzari eman zaion garrantziak, kultuaren mailakoa, gimnasioak aberasteaz aparte eta liburutegiak hustutzeaz gainera, diskoteken mundua zeharo aldatu du. Gaueko tenplo hauetan esibizionistak eta voyeurrak ugaldtu egin dira neurrigabeki. Egungo edertasunaren estandarra hezuramaitzen duten gorputzek sortzen duten karga erotikoak ez ditu logikaren arabera eragin beharko lituzketen ondorio sexualak ekartzen, garai batean gertatzen zen bezala. Limurketa edo sedukzioaren jokuak metamorfosi handia izan du: lehen larrutan egiteko bitarteko bat bazen, orain berrori helburu bilakatu da, norbaitengan desira sexuala piztea nahikoa izaten da askorentzat. Gaur egun oso zabaldua dago gorputzaren azala ikutzeke uzten duen sexualitate deskafinatua, ahula, praktikatzea. Agian, sortutako desira bikotearekiko harremanaren bidetik errealiza daiteke eta, beti ere, masturbazioa medio. Exibizionismoak eta voyeurismoak itxuratutako eremuak ezagutzen ditu, alabaina, beste elkarganatze teknikak: elkar ikutze "lighth" a eta musukatze soila, ahoek marraztutako mugetatik aterako ez delarik. Badira, jakina, dantzaleketako komunera jotzen dutenak sexu topaketa intentsuagoa, halabeharrez laburra, egitera, baina nago gehienek sexu harreman

erabateko bati eragozpen handiak jartzen dizkiotela, hots, duela urte gutxi baino dezente hautakorragoa dela gazte jendea.

Bukatzeko, eta konklusio gisa, esango nuke hiesaren garai honetan sexualitate homosexualak aldaketarik ezagutu duela, eta aldaketen arrazoi nagusienetakoa hiesa (edo hiesari beldurra, hobeki esan) izan dela. Ez arrazoi bakarra, aipatu ditugun beste faktore batzuek ere eragin erabakiorra izan baitute, nire iritziz. Edonola ere, ez dut uste gizonezkoen arteko sexu harremanen munduan iraultza historikoa gertatu denik, emakumearen askapen prozesuak, lehenengo munduan, gizonen eta emakumeen arteko harremanetan eragin zuena bezalakoa, esaterako. Gainera, aztertu dugun aldaketa-prozesu horretan hiesari beldurra izan bada agente inportanteena, hiesak sortutako hilkortasuna gutxitzen ari den neurrian, hiesa gaixotasun kroniko ez hiltzaile bihurtzen ari den moduan -eta zer esanik ez horren aurkako bakuna asmatzen denean!-, agente hark bere indarra eta eragina galdu egingo ditu.

Etorkizunari begira, esango nuke sexuafektibitateak gizarteratzeko eta instituzionalizatzeko dituen moduak nabarmenki aldatzen ari direla. Ezer azpimarratzekotan, esango nuke uniformismoaren garaia, homogeneousazio obligaziozkoaren diktadura bukatzeaz dagoela, bai harreman heterosexualetan, bai eta hartueman homosexual eta lesbianoetan ere. Lehenengoei bagagozkie, bizitza osorako ezkontza gehi emakumearen zapalkuntza, gehi emakumeari sexualitatea ukatzea izan dira aipatu ereduaren elementu nagusiak, eta horiek irauli diren heinean, ezkontza eredu klasikoa ez da jada aukera monolitiko bakarra. Aldiz, sexuafektibitateak dimentsio berriak ezagutu ditu. Homosexualitatea eta lesbianismoa, berriz, klandestinitatetik ateratzen ari dira eta forma instituzionalizatueta sartzeko aukera izaten ari dira. Horrek guztiak dibertsitatea dakar berarekin, ene irudirako. Esan nahi dut sexualitatearen praxia anitza izango dela inoiz baino gehiago, eta ziberonismoaren barruti hertsitik aterako ez den ermitaño sexualaren

bizilagun izan daitekeela gauero sexu lagun berriaren bila ateratzen den abenturazalea.

Dena dela, esandako guztia funts zientifiko ahula duten datuetan eta nire behatzeko gaitasun eztabaidagarrian oinarri duten espekulazioaren ondorio da. Eta ez dezagun ahantz desira sexualari ezin zaizkiola hesiak jarri, eta segur aski ez sexologoen, ez soziologoen ezta Guztiahaldunaren begia ere iristen ez den eremuan hiesak ez ditu gaindiezineko oztopoak eraiki. Aitzitik, bizitzaren landa ederrena osatzen duen sexualitateak hiesari gerra irabazi diolakoan nago.



## *Hiesa eta gorputz politikoa*

**B**eltza naiz eta ederra. Gay nauzu eta ederra. Emakumeok ere giza izakiak gara. Hiesa, isiltasuna = heriotza. Lau lema hauk kaleetan zehar aldarrikatu dutenei eskaini nahi diet ene gaurko solasalditxoak. Logos-a, hitza, arrazoinamendua, gizakume egiten gaituena erabiltzeko gai izan direlako, ez beren eskubideak soilik, baizik eta beren errealitatea bera ere, ukatu egiten zituen gizartearen aurrean.

Hobekien heltzen diren mezuak aldeztu aurretik bertan daudenak direla ba dakit. Eta beste mezuak, ez direla inoiz heltzen edota heltzen badira, beranduegi heltzen direla ere, ba dakit. Eta gainera, sarriegi, mezularia bera, erahil egiten dela ere, jakin ba dakit. Hala eta guztiz ere, ez naute isileraziko, eta mintzatu egingo naiz.

Gaur esan nahi dizuedana pasioz beterik esango dizuet. Bizitzarekiko konpromezu militante batetik jaio delako. Arrazoaia eta pasioa elkar loturik joan daitezkeelako, elkar loturik joan beharko luketeelako, alegia. Pasiorik gabeko arrazoaia irrazionala baita.

Bizitza hauskorra da beti. Gizakumeon bizitza batez ere. Gizakumeak bagina bezala bizitzea, mugan, amiltegiaren hegalean, arriskutan, bizitzea da. Jaspersek "muga-egoerak" deitu zituen hoietan bizitze horrek, geure izatearen egiatzko barne-izatea argitzen digu. Eta berak "muga-egoerak" aipatzen zituenean, ondoko hauetaz ari zen: heriotza, sufrimendua, zoria, errua, eta borroka. Guzti hauk erraz aurki ditzakegu hiesaz mintzatzean.

Hiesaren historia, ahanzkortasun eta burugabekeria kriminalen historia da, alde batetik, eta bestetik, afektatuen eta beren komunitateen aldetik, kuraiarena, inoiz asmatzerik ez zegoen errekurtsoen mobilizapenarena.

Munduan ez da deus hain esan nahirik gabea birus bat baino. Birusak ez du asmorik, ez planik, ez arrazoirik. Ez da inolako eskemaren parterik, ez darama inolako barne signifikaziorik. Bainan, alajaina, esan nahi falta hori, signifikazio eza bera da, guretzat, konfronta ezina den zerbait.

Hiesa “gertakizun orokor” bat da, bere transakzioak une berean osasun mailakoak, ekonomikoak, juridikoak, moralak, estetikoak, erlijiosoak, politikoak eta mitologikoak dira, eta bere esannahia ez daiteke, beraz, disziplina bakar baten arlotik edo ikuspuntutik era egoki batez deskribitu.

Eritasuna, ezaugarri guzti horik dituen gertakizun bat dela pentsatzera ez gaude ohituta. Jeneralean, osasuna eta eritasunaren determinanteak batez ere biologikoak direla uste ohi dugu, eta medikuntza, kontsiderazio sozial eta ekonomiko guztietatik kanpo, ezaguera gorputz autonomo eta kuestionaezin bat sortzeko gai den zientzia bat bezala ikusten ohi dugu.

Bainan eritasun orok maila indibidualaz gain, bere maila soziala, etikoa eta politikoa du. Eta edozein eritasun sozialki eta kulturalki garrantzitsu izatera heltzen bada, berari eransten zaion, berari eta era berean heriotzari eransten zaien signifikatuengatik da. Ba da, gure artean, eritasuna gai moraletaz erlazionatzen duen tradizio luzea. Eritasuna eta pekatua elkar loturik agertarazi zaizkigu luzaz, interkanbiabileak balira. Sexoaz nolabait loturik agertu diren eritasunek, morbo berezi bat lortu izan dute irudikapen sozialean. Eta hala ere, nahitaez, sexoa eta heriotza bizitzaren beharrezko atalak dira.

Eta nere ustez, beren inguruan eraiki diren metaforak, alegoriak, gezurrak eta beldurrak, bizitzaz goza dezagun galerazteko, eta heriotzaren aurrean beldurrez jota ager gaitezen sortu dira.

Bibliak pekatuaren ordaina heriotza dela esaten digu. Geure tradizioek ere horrelako zerbait erakutsi digute. Sexoak, heriotzara garamatzala sinisten jarraitzen dugun bitartean, ezinezkoa izango zaigu hiesa moralizatu gabe eta mistifikatu gabe ikustea. Zeren hiesa ez da edozein motatako eritasunik. Bi plazer konkretuez erlazonaturik baitago: sexoa eta drogak. Harreman honek, hasieratik, gizarteak eritasunarekiko interes puritano bat izanen duela garantizatzen du, eta era berean, eritasunari buruzko erreflexioa klinikoak ez diren kontsiderazioez kutsatu egingo dela. Eta nola hasieran, aldez aurretik marjintatuak, eta neurri batean kriminalizatuak zeuden talde batzuegan agertu zenez, birusaren misterioa eta ziurgabetasuna, kulpabilizazioa eta kriminalizazioa, eritasunaren errauspen propioei eranstea erraztu du erabat.

Hiesa, komunikabideetan batez ere, bainan ez hoietan bakarrik, homosexualitatearen, prostituzioaren, promiskuitatearen, belztasunaren edo drogekiko adikzioaren ondorioa balitz irudikatua izan da. Manipulazio honek, eria demonizatzearen joerari, eta eritasuna bera, beste eritasun sakonago baten sintoma bat izango balitz bezala aurkeztearen ohiturari, laguntza handia eman die. Horrela, hiesdunak pertsona mehatxagarri bezala, eritasunaren agente sekretoak bezala aurkeztu nahi izan dizkigute. Hiesaz gaisorik egoteak, gaiso egoteaz gain, estigma hori bere identitate pertsonalean erantsita eramatea suposatzen du.

Eritasuna ulertzeko eta perzibitzeko erak historikoki osatzen dira. Eritasunaz dauzkagun perzepzioak geure kontzepzio sozialek, politikoek, erlijiosoek eta moralek mugatzen dituzte. Eritasuna jermen batzuek kausatzen dutela defendatzen duen teoriak, eritasuna bere

kontestu sozialetik abstraitu nahi du, eta laborategiaren bakardadean hobekien ikertzen den gai bat balitz definitu nahi du. Baina eritasunaren ulerkuntza sakonago bat nahi badugu, bere alde biologiko eta sozialak, eta bere esannahi kulturalak eta intzidentzia estadistikoa ere kontutan eduki beharko dugu.

Hiesak, epidemia deitzen dugun gertakizunaren alde osagarri guztien interakzioak ulertzearen premiazko beharra azpimarratzen du. Epidemiak, eritasun konkretuak sortu eta gara daitezten kabi ekologiko mesedegarri bat sortzen duen faktore sozial eta biologiko askoren interakzio konplexuaren ondorio dira. Epidemiek selekzio naturalaren elementuak bailiran jokatzen dute, pertsonak han hemenka afektatuz, eta hoi heriotza probokatuz, norberari tokatu behar ote zaion inork jakiterik ez duelarik. Hiesaren kasuan, egun duen signifkazioa ematen diona, epidemiaren tamainua baino, duen -edo erantsi zaion- esannahi sinbolikoa da. Zeren eta arriskua karakterizatu duen pentsamoldea, signifkazioz kargaturik dago, arriskuaren perzepzioak printzipio moraletaz erabat lotu egin direlako.

Hiesak, bizitza sozialaz eta sexu diferentziaz geure ikuspuntuak gobernatzen dituzten kategorien eta dibisioen artifizialtsauna ongi frogatu du, alegia. Hiesak, geure kultur funts askoren oinarriak suposatzen dituen dikotomiak, hots, gizon/emakume, heterosexual/homosexual, toxikomano/ez-toxikomano, aktibo/pasibo, eta abar, guztiz faltsuak direla erakutsi digu, elkarren kontrakoak bailira aurkeztuak izan bazaizkigu ere, egitan konplementarioak direlako, eta beren arteko mugak nahiko ganduetsu eta zirriborrotsuak. Gainera, elkarren kontrakoak omen diren terminoak ez dira berdinki baloratzen, baizik eta, bietako batek du estrukturaliki posizio dominatzaile eta horrekin batera, bestea definitzeko boterea, eta botere ezberdintasun honek, botere desoreka honek, bere ondorioak ditu, beste maila askoren artean, prebentzio lanak egiteko orduan.

Balore sozialak, kulturalak eta moralak funtsezkoak dira eritasunaren aurrean gizarte batek nola jokatu duen erabakitzeke. Gizarteak ez du inoiz lagunkiro jokatu epidemiaren aurrean. Epidemiek gizartearen aurrean jasotako izpiluak bailira jokatzen dute, eta izpilu hoietan jarrera eta balore sozialen patroia nagusiak isladatzen dira. Historikoki, beldur kolektiboek, antsietateak eta panikoak, oraindik “garbi” daudenak babesteko diseinaturiko hainbat neurri sortarazi dute, mingarritzat hartzen den medioa garbituz, eta iadanik eri daudenak identifikatuz, eliminatuz eta isladatuz. Eta hauxe da, mendeetan zehar, hainbat eta hainbat gizartetan, legistatu eta aurrera eramane den sanital kodigoaren muina osatu duten neurrien arrazoinamendua.

Jeneralean kutsaduraren ulerkuntza zientifiko modernoak eritasunaren bisio folklorikoak neutralizatu dituela onartzen da, eta horren ondorioz, gizarte premodernotan ematen ziren juizio moralak eta politikoak gaindituak daudela. Bainan, zientziak kontrol eta ulerkuntza definitiboen iturri bezala porrot egiten duenean, jendea bere orden propioa sortzen saiatzen da, bere bulnerabilitatearen zentzua murriztu nahiean. Eritasun batek bere esannahi soziala eta kulturala ez du gizarte perzeptzioengan galtzen erabat desagertzen den arte. Eta kontutan izan, eritasun bakoitzak bere ezaugarri kliniko propioak dituela, eta sarritan faktore genetiko, kultural edo politikoengatik bulnerableagoak diren talde sozial batzuei objektibizatzen dituela. Horrexegaitik, eritasunari ematen zaion erantzuna arma boteretsu bat bihurtu daiteke da dibisio eta prejuizio sozialak disparatzeko. Lehendabizi, eritasunari ihes edo uko egiten zaio. Gero, beren ideia erlijiosoengatik, kultur praktikengatik, satus ekonomikoarengatik edo orientazio sexualarengatik diferenteak direnen, edo hobe esan, gizarteak diferentetzat hartzen dituenen buruak koplaturukotzat erabiltzen ditu, epidemiagatik errudun bihurtzen ditu.

Kulpabilizazioa beti izan da eritasun misteriotsuak adierazteko,

ulerterrazagoak bihurtzeko, bide bat. Eritasunaren errua lokalizatzea, kontrol estrategia bat da, zeren eta, erresponstabilitatea finkatzerik badugu, eritasunaren kontra ere agian zerbait, disziplina, zuhurtasuna, isolamendua, zigorra, zerbait, egin dezakegula uste izaten dugu. Kulpabilizatzea, antsietate eta heriotz egoera batetan, orden eta segurtasun eskaera bat da. Kulpabilizatzean, normala dena definitzen dugu, portarera osasungarrien eta harreman sozial egokien mugak eraikitzen ditugu, eta sogilea, beldurraren kausa denarengandik, bereizi egiten dugu. Kulpabilizatzea muga sozial eta psikologikoak eraikitzeko era bat da; ni eta eriaren arteko muga azpimarratzeko era bat, eta beraz, antsietatearen harresiari ate bat irekitzeko modu bat. Arriskutan nor dagoen baieztatzeko definizio estereotipatuak egitea, fantaseatzea da, alegia. Bainan, eritasuna “bestearekin” lotzen ohi da, hots, beste arrazez, beste klaseez, beste talde etnikoez, eta halabeharrez, kulparen lokusa arazo ideologikoez, sozialez eta politikoez bat egiten da. Kulpa, beraz, estereotipo eta prejuizio sozialen erreflexu bat da. Eta orduan, eritasunagatik ematen den kulpabilizazioa, pertsona eta talde konkretu batzuren kontrako gurutzada bihur daiteke. Erruaren pisua, talde marjinalak daramatelarik, eritasunaz ematen diren adierazpenak portaera morala eta egokia definitzeko tresna bihur daitezkeela argi dago. Kanpokoan eta barnekoan arteko muga, garbien eta zikinen artekoa, geureen eta infekzioaren iturri direnen artekoa markatzeko, eritasunaren kulpa moraltasunik ezean kokatzeak, erlijioak tabu sexualak erabiltzeko duen ohitura zaharra erreflejatzen du. Horren bitartez, ohitura sozialak jeneralean, eta sexualak partikularrean, berrindartzeko tresna bihurtzen da eritasuna.

Gaur bertan, oraindik ere, ba dira beren erotofobiaz eta fanatismo erlijiosoaz, infekzioaren iturria bere kausarekin nahasten dutenak, eta hori egitean, eritasunarekiko errua, ez birusean, baizik eta eriengan kokatzen dutenak. Eri dauden “portaera autogupidatsua, naturaren kontrakoa, basatia” infekzioarekiko zaugarri bihurtzen dutela diote.

Eta honela, natur gertakizun batetik, infekzio batetik, interpretazio morala egiten dute. Eta hain kaltegarria den “izurrite moralaren” ideia sortzen dute. Eta kaltegarria dela diot, zeren eta alde batetik oraindik bizitzarekiko mehatxugarria den eritasunarekiko gaiak faltzuki moralizatzen dituelako, eta bestetik, osasun publikoarekiko eta giza eskubideekiko funtsezko garrantzia duten gaietaz, pentsakizun argitzaile baten ahalmena ilundu eta galeraztu egiten duelako. Izurrite moralaren erabilpen politiko edo erlijioso, egun, intelektualki, etikoki eta moralki eskusagaitza da.

Kontziente edo inkontzienteki, bainan beti neurri sozial batzu defendatzearren, ideia politiko batzu mantentzearren, sinesbide erlijioso batzu saltzearren, erruaren erretorika honek, portaera ez dela beti erabat gogozkoa ahaztu egiten du. Eta eritasunarekiko kontrola mugatua denean, besteak kulpabilizatzen ditu, gu geu, “normalok”, babesteko asmoz. Muga tinkoak diseinatzean, hots “besteak” -beste taldeak, portaera desbideratuak dituzten taldeak- kulpabilizatzean, gu geu gaisotzeko eta hiltzeko ahalmenari itzuri egiten saiatzen gara, geure zaurgarritasun zentzu propiotik alde egiten, eta giza kondizioari datxekion hilkortasuna exorzizatzen.

Horrexegatik, epidemia batek, gizarte baten klase sozialik pobreenak edota talde marjinatuenak harrapatzen dituenean, moralkeriaren perlari bidea zabaltzen dion are ipia sortzen hasi ohi da.

Hiesak norberaren ekintza pribatuak beren ondorio sozialekin erabat lotzen ditu. Eta gaur ba dakigu, portaera, indar konplexuren mende dagoela. Berehala alda ez daitezkeen, ala agian, aldaezinak diren indar psikologiko barnekoien menpe, alde batetik, eta bestalde, kanpoko presioen menpe dagoela badakigu. Sexoa bera ere, oso indartsu diren hainbat eraginen menpe dago; eragin sozialak, ekonomikoak, konsziente eta inkonszienteak, eritasunari edo heriotzari diegun beldurra baino askoz indartsuagoak izan daitezkeenak. Areago

esanen dut, psikoanalisiak, sexoa non hasten den, hots, non kokatzen dugun “sexuala” eta “ez-sexuala”ren arteko muga, pertsonen artean ez dagoela akordiorik erakutsi digu. Hau argitzeko nahiean, uste dut ez dudala Clinton presidenteak sexoaz dituen ideiak aipatzeko beharrik izango, ezta?. Guzti hau prebentzio neurriak diseinatzerakoan kontutan ez izatea moralki irrespontsable izatea da.

Zeren eta beharrezko da eritasun hau prebenitzea, eta horretarako heziketa, behar beharrezkoa da. Bainan kasu honetan heziketa honek, heziketa sexuala behar du izan. Eta hemen ere, berriz ere, gizartearekin topo egiten dugu, eta geure gizarteak dituen mito eta beldur guztiakin. Ez dezagun ahantz lehen aipatu dudana bezala, sexoaz hitzegitea, botere ezberdintasunez mintzatzea dela.

Eta prebentzioaz ari garelarik, sexu seguruagoa aipatu beharra dugu, zeren eta hau bait da ziur, zuhur hautatzeko eta, geure osasuna eta geure maitaleen osasuna babesteko daukagun bide bakarra. Hobe da, aberatsago da, errealago da, sexu seguruagoaren plazerrak aipatu dituen heziketa bat egitea, heriotzari beldurra zabaltzen duena baino. Sexu seguruagoak denok infektatuak bagina bezala porta gaitezen esijitzen du, inork bere burua seropositibotzat deklaratzeko beharra senti ez dezan. Jarrera hau, berez infektatuak, inherenteki kulpableak, eta berez ez infektatuak, inherenteki inozenteak direla aipatzen duen lojikaren kontrako alternatiba etiko bat da. Geure praktika konsentsuatu guztiak moralki onak direla aitortzen duen portaera bakarra, sexu seguruagoa da, praktika batzu besteak baino moralagoak edo hobeagoak defendatzen dituen moralkeria bihurriaren aurrean. Sexu seguruagoak etika eta erotika bat osatzen du; desio sexuala, bere forma guztietan baieztaten duen kultur praktika kolektiboak, elkarren arteko errespontsabilitatearekiko eta ardurarekiko konpromezu aktibo eta praktikoarekin lotzen dituelako.

Argi da, beraz, hiesaz heziketa egitea informazio biomedikoa

ematea baino, askoz sakonagoa dela. Jakituria horren eta herri sinismenen arteko guneaz ere ihardun behar du; gizartearen kontzepzio kulturalak ere landu behar ditu; talde indargabeak indartu behar ditu...

Zoritxarrez, sexu portaeraren gaia moralkeriazko horma batek, sentimentalkeria erromantikoak eta hipokresiak inguratua da. Mundu honetan oso urri dira sexu harreman bakar bat izan dutenak. Eta hala ere, beren aparteko esperientzia, beste guztion aurrean jasotzen dute, berez ondasun bat izango balitz bezala, beste guztiok imitatu beharreko eredu bat bailitz. Dena dela, ongi dakigu jakin, geurekiko, zintzoak bagera behintzat, birusaren kontrako profilaktiko eraginkorrenak, ez direla ezkontz eraztunetan edo fideltasun hitzarmenetan aurkitzen.

Populazioa hiesarekiko arrisku ezberdineko taldeengan bereiztu dute. Arrisku handiko eta arrisku gutxiko taldeak direla diote. Eta arrisku handiko taldekoak omen dira, arrisku gutxiko taldekoak preserbatzeko neurriak hartu behar dituztenak. Arrisku gutxiko taldekoek, aldiz, ez dute lan hori bete beharrik. Horrela, gorputz batzu pribilejiatu egiten dira, bestak disziplinatzen direlarik. Eta orden honek, arrisku gutxien duena, gizon heterosexuala dela, dio. Beste guztiok, emakumeak eta gizon homosexualok, arriskutsuak gara. Eta beste guztion lana da gizon heterosexuala, beraz, gizon humano bakarra, gizon natural bakarra, eritasunatik libre mantentzea. Bainan hau ez da bere lana. Hortik, egun, gizartean dagoen arriskua. Zeren eta ezjakintasuna, culpa, aurreiritzia eta beldurra dira hiesari buruzko heziketaren kontrako mehatsurik handienak, eta noski, GIBak, birusak izan ditzakeen aliaturik hoberenak.

Beldurraren taktika zaharrek porrot egin dute; sexualitateari uko egiteak edo erreprimitzeak ere porrot egin du; erien kulpabilizazioak eta moralkeriak osasun publikoaren mekanismo bezala ere porrot egin dute. Soluzio biomedikoek itxaropen handia eskaintzen diguten arren,

ezin izan dute geure buruak eritasun infekziosotik askatu ahal izan. Hurbiltze kreatiboagoak eta sofistikatuagoak behar ditugu. Portaera aldaketak garrantzi handikoak dira eritasun honetan, eta teknika berriak erabat beharrezko dira portaera aldaketa horiek egin nahi dituztenei lagundu ahal izatko. Baian, portaera aldaketak aldarrikatzen dudanean, ez naiz zelibatoaz, heterosexualiteaz edo moralkeriaz ari. Bakar bakarrik, patojenoarekiko, birusarekiko kontaktoa ebitatzeaz ari naiz.

Hiesak oraindik gaur egun, mende honen hasieran eta ondoko urteetan ere, batez ere behar duena borondate politikoa, heziketa publikoa eta pentsamendu arrazionala dira, eta ez, inolaz ere ez, beldurrari, abstinentziari, ezinari edo gorrotoari deiak.

BIBLIOGRAFIA.

**BLASIUS, Mark:** *Gay and Lesbian Politics. Sexuality and the Emergence of a New Ethic.* Philadelphia: Temple University Press, 1994.

**CHAMPAGNE, John:** *The Ethics of Marginality. A New Approach to Gay Studies.* London: University of Minnesota Press, 1995.

**CRIMP, Douglas,** ed. *AIDS, Cultural Analysis, Cultural Activism.* Cambridge, Massachusetts: The MIT Press, 1991.

**EDWARDS, Tim:** *Erotics and Politics. Gay Male Sexuality, Masculinity and Feminism.* New York: Routledge, 1994.

**GRAY Joni N.; LYONS, Phillip M. Jr.; MELTON Gery B.:** *Ethical and Legal Issues in AIDS Research.* Baltimore and London: The Johns Hopkins University Press, 1995.

**PATTON, Cindy:** *Fatal Advice. How safe-sex education went wrong.* London: Duke University Press, 1996.

**RANGER, Terence; SLACK, Paul,** eds. *Epidemics and Ideas. Essays on the Historical Perception of Pestilence.* Cambridge: Cambridge University Press, 1992.

**ROTELLO, Gabriel:** *Sexual Ecology. AIDS and the Destiny of Gay Men.* New York: Penguin, 1998.

**WATNEY, Simon:** *Practices of Freedom.* London: Rivers Oram Press, 1994.